

Euskaltzain Langile xumea eta euskaltzale amorratua

"Danbora galdu arte" (1985) narrazioa eta "Gabor dut nuntzio" (1986) poema liburu ere argitaratu eman ditu. 1964. urteko urriaren 30ean euskaltzain urgaz e izendatu zuten Euskaltzaindiak eta 2002ko urriaren 27an euskaltzain ohorezko, beste sei euskaltzalekin batera. Aita Vilasante, euskara batuaeren sortzailearekin batera, euskal literaturgintzak aurreko gizaldian izan duen langile xume eta garrantzitsuenetakoa izan zen Gandiaga. Bere ezagun

eta lagunen arabera, gizon apala, zintzoa eta inolako zalantzarik gabe, poeta handia.

Klasikoak Lauaxeta, Lizardi eta Orixe, sakratuak

Lauaxeta, Lizardi eta Orixeen liburuak "sakratuak" zirela esaten zuten Bitoriano Gandiagak: «Espazioan koinziditzen dugu. Ni modernismo harikoa naiz, baina espazioan koinziditzen dugu». Icaztea gozamenen zehar Gandiagarenzatz eta uenerik latzenetan ere zeregin hori



eutsi zion, azken uenera arte. Bitoriano Gandiagaren euskarari buruz ere asko hitz egin da. Berak zioenez, «barura egindako bidaietan berreskuratzen dut». Euskal idazle eta euskaltzaina Arantzazuko santutegian hil zen, eta gure artean aldendu zela gaur betetzen dira arte bi.

Argazkian, indusketa batzuetan, Mendizale amorratua zen Bitoriano Gandiaga.

Bitoriano Gandiaga, hosto iraunkorreko zuhaitza

Paulo Agirrebaltzategi

GAUR BETETZEN dira bi urte Bitoriano Gandiaga hil zitzaigula Arantzazun, negu bizian. Bi urteotan hainbat gorazarre eta omenaldi jasoko du Gandiaga: kantaldiak eta errezitaldiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, aldizkari monografikoak eta liburuak -aipatzekoak dira argitalpen hauek: *Bizitza itxaropen delako* poema antologia, EHU, 2001; *Bitoriano Gandiaga, Mendata*, Bilbo 2001; *Idatz eta Mintz* 33-34, Labayru, 2002; *Bitoriano Gandiaga, "XX. Mendeko Poesia Kaleak"*, Susa, 2001 - Bizirik dirau Gandiagak jendearen oroimenean. Eta bizirik dirau bere poemetan...

Behin baino gehiagotan entzun izan dugu, poeta handia izanik Gandiaga, ez dela poeta oparoa izan, eta oso apurka eta aldika eskaintzen zituela bere loreak. Argitaratu, sei liburu ditu argitaratuak, eta honelako eta bestelako aldizkari eta orritan beste hainbat pieza: denetara 650 poema inguru. Ez da agian oso ugaria; baina ez da gutxi ere. Tartean geratu zitzaizkion Gandiagaren urtetako isilaldi luzeak, batez ere *Elorri* liburu argitaratu zuenetik (1962) *Hiru gizon bakarka* argitaratu zuen arte (1974): 12 urte. Baina hori ere ez da guztiz egia, zeren eta 1964-1974 bitartean 30 poematik gora argitaratu baitzuen *Olerti* aldizkarian eta 1977an argitaratu zuen *Ahotsik behartu gabe*: bere azkeneko obra baino urtebete lehenago *Zurgai* aldizkarian "Gaixondoa" izeneko poema sorta erakutsi zuen.

Idatzi gehiago idazten zuten, osterata, tartetartean, berak aitortzen duenez, baina paper-saskira joaten ziren nonbait poema sortuberririk. Oteizak "behartu" zuten Gandiaga berriro poesia idaztera. Ezaguna da *Hiru Gizon Bakarka* liburuak poema hau, non Oteizaren eta bere arteko elkarriketze ematen baitigu:

"Nik ez dut orain idazten / paper-saskirako baizen, / agian, noizbait, zeozer. / Zer paper-saski ta sasko? / Euskalerreri ez al dago / paper-saski, hutsik asko. / Entzun nuen ta pentsatu. / Herriak nindun ikutu. / Herriak eta egialk / guztiok behar bait gaitu. / Tailer batean nengoan, / Oteiza baten ondoan. / Hitzak apalki entzun nizekion / ta asmo bat hartu beroan: / Agintzen dizut, egin, / idazten dudana guztia / taller hontara jasokodizut. / Gaurtik hemen dut saskia. / Oteizaren eskartik / herriarenak entzunik, / iratzarri naid janirik lotan / nengoan paper-saskitik."

Gerora, berarekin bizi ziren lagun fraideek (bereziki Dionisio Arratik eta Pello Zabalak) biltzatu eta lagun-edu zuten, idazten zituzten piezak jasotzen eta biltzen. Eta nekez bazen ere aldika bere hainbat poema argitaldiaren eskuetan ipinitz joan zen. Lagunei esker, eta seguruenik Gandiaga bere, argitaraturiko bere liburuek izandako harrera onaren ondorioz, bere buruagan irabazitz zihon konfiantzagarri jaso eta gordez joan zen bere idazlan asko. Handia da ondare frantziskotarrak utzi digun ondare literarioa; argitaratutakoa baino askoz ugariagoa da argitaratu gabe utzi diguna.

Lehen datu adierazgarria: 650 bat baldin badira Gandiagaren poema argitaratuak, 2.250etik gora dira argitaratu gabe haren laneko gelan geratu ziren pieza poetikoak. Uste izateko da, beste hainbat eta hainbat bere adiskide eta lagun eskuetan ipini zuela. Gandiagaren artxibora pasa diren poesietako asko autoreak berak landuak eta zuzenduak zituen bere eskuz; jatorrizko eskuizkribuetan nahiz makinak idatzitako kopietan; beste batzuk amaitu gabe lagatukoak; beste batzuk iradokizuntzat utziak, gero zabaltzeko eta eratzeko asmoz edo. Berehala argitaratu emateko asmoz edo, prestatuak ere utzi zuten poema-sorta on bat, liburu egitura emanda, sarre eta guzti. Badu bestelako poema-sorta adierazgarriak ere. Horietan deigarriena agian 30 poemek osaturiko *Maitetasun gehiegia* izeneko da... Sarrean lehen hitzetan "Enamortuarena egiten hasi naitzoda dama ezegunari" argituz hasten da; Maitetasun-poemak, beraz hila-betez Euskadi Irratiko estudioetako salan, bertatik sekula irten gabe, omen zegoen dama irudimenezkoari idazten dizki.

Gandiagaren obrako hainbat gai nagusi ezaguna da, bere poema argitaratuak: Izadia, Lurra, Urtaoak, Euskal Herria, Euskara, Hiria, Gabonak, Arantzazu, Jendea. Ildo berorietatik doan poema eder asko geratu da oraingo argitaratzeke. Gandiagaren azken urtetako poesia argitaratu gabeetan humanismoak indar handiago hartu zuen, baitetik, eta horren dimentsio espiritualak, existentzialak eta trantsendentzialak nagusitu ziren. Beste-rik, Bizitza eta bizi-espereintzia (gizonez emakumeenak oro har, eta bere bizipen pertsonalak, bereziki), gaixotasuna eta heriotza, denbora eta norberaren bizialdiko betekizuna, Jainkoa eta Jesukristo, Baiea eta Fedea. Bizipen horietatik otoi-z-poema baren barenkoak eta kanta eta gorazarre liturgikoak atera zitzaizkion barra-barra azken urteetan; horietako askok 2000 urtearen data daramate.

Argia askarian argitaratutako elkarrizketa batean hainbat urtean Gandiagaren "idazkariarena" egina zuten Dionisio Arratik kezka modukoa azaldu zuten, galduek izango ote ziren poetaren eskuako testu jatorrizkoak. Dionisioaren lasaitasunerako eta guztion pozerako izan dezakegu Gandiagaren poemak 1.200 inguru "eskuizkribu" jatorrizko geratu zaizkigula artxibon.

Ezaguna da zuhaitzaren garrantzia Gandiagaren simbolismo poetikoan. Areago, bere burua zuhaitzaren urretan irudikatu zuen maiz: "Ni bai, ni politikoa naiz, / baina ez naiz / edozein arbol bano / politikoago" ("Miren, yo soy un árbol (...) No se olvidé Ud. que yo soy ese, el árbol", al-darrikatu zuten jusez aurretan (*Hiru Gizon Bakarka*, 188 or.). Arbolak eta gizakia trukatu egiten zaizkio bere buruan; eta zuhaitzekin solasean hasten da: «Zuhaitzek dizkidate / ipin-nak kontatzen / haizeari entzunak: / zenbait argiak, leunak, / zenbait latzak, ilunak / zenbait gertuko, / zenbait zurrunak». Eta bere espantuzaren pizgarri landatzen ditu haritzak.

Bere hitzak

1 Elorri poema-sorta

«Esan beharra daukat: Elorri ez du izan zale-turik. Sinbolista dela esan dute, inimizta eta guzti hori... Argitaratu eman eta gero entzeratu nintzen hori guztia ez zegoela modan, poesia soziala zegoela modan. Elorri poesia zaharkitua zela esan zuten. Eta nik, diot, zer dauka bere garaikidetasuna lau haizetara aldamiratzatzen duen garai horek?»

2 Oteiza

«Oso gutxi geratu ginen Oteizarekin ze Oteiza asko esan jizten duen gizona da. Oteiza lagunak galduz joan zen. Eta orduan joan nintzen ni ureratzuz. Berak idaztera behartu ninduen. Oso interesgarria zen Oteiza niretzat eta horiez galtzearen hasi nintzen idazten».

3 Gabriel Aresti

«Nahiko goiz ezagutu nuen nik Aresti, 56an edo. Eta Arestik botatzen zituzten nere poesien kontrara... puntada batzuk bota zituen. Nik asko. Inkonszienteki izan da influentziarik, izan baldin bada».

4 Gizona

«Elkar txokatzten dute askotan naizen gauzek euren artean».

5 Euskara

«Eutsi egin behar diogu euskarari, geure herri-tasunaren gauzari garrantzizkoena bera delako».

6 Hiria

«Madrilrek zer bait esan nahi zidan. Nik entzun egiten nion. Baina nik ere zer bait esan nahi nion Madril-i. Ikusten nuela, esate baterako. Orduan nik esan nahi nion Madril-i ikusten nuela, entzuten nuela».



Lekuona, Gandiagari buruz

LAGUN ASKO egin zituen Bitoriano Gandiagak bere bizitzan zehar. Horietako batzuk gorazarre eta hitz dotore ugari eskaini zituen, bai hil aurretik, bai zendu ondoren. Juan Mari Lekuona euskaltzainarentzat, adibidez, «oso pertsona zintzoa zen, indar handikoa. Berezia zen Bitoriano Gandiaga». «Bizia ematen zion poesiak. Eta azken uenera arte».

Sentibera

te ere idazteko gogoz izan zen. Horrez gain euskara oso gutxi erabili izan du berak erabili izan duen bezala. Ez du parekorik, oso gauza berezia da egin duena», zioen Lekuonak. Joxe Azurmendi irakasle, idazle eta pentsalaria ere Gandiagaren lagun handia zen eta, bere hitzetan, «oso sentibera zen, baina mundu zakar baten bizi zen, ajola gutxiko mundu batean eta horrek sofizarazi egiten zion. Arrotz sentitzen zen, maite zituen gauzek ez zutelako lekuri mundu honetan».